+ Derion, Bagilak 3 - 1959 urtean

P. Lafitte Jaun agurgarriari
Baiona'ra

Ene Jaun maitea:

Ez dogu iñoiz alkar ikusi, baña ori gora-bera ezagutzen zaitut. "Euzko-gogoa" aldizkari ederra jasoten det aspaldi onetan, ta irakurten dodaz poz-pozik zure lanak. Aspaldian banebelan zuri idazteko gogo aundia, baña enevukan zure zuzenbidea. Eskatu neutzan Zaitegi Jaunari baña ez-daust oraindiño erantzun. Arañegun azkenez etorri zan abade-ikastetxe onetara neure adiskide bat ta berak emon eustazan zure ezaugarriak. Beragaitik dozu idazti au zeure eskuetan.

"Euzko gogoa"n irakurri neban, Baiona'ko Seminariuan euzkera irakasten zenduala; azko poztu ninduan barri onek. Badago orko apaiz-gaien artean euzkeraren alde, ezizko zaletasunik? Emen bizkor ari gera lan ta lan;

aldogun neurian, eragozpen aundiak euki arén.
Ezan egiezue, orko apaiz-geiei, gure izenian, nai badabe euki artu-emonik ezkutitz-bidez ulertu geintekezela.
Emon gure zorionik beroenak ikasten ari diranai.
Emen "Karmel" "Zeruko argia", ta "Euzko-gogoa" artzen doguz, poz-pozik irakurten dira.
Zuk "Heria" zuzentzen dozu ez? Albadozu bidldu egizuz iyeki batzuk, ze izenez baño ez dogu ezagutzen.
Uzte dot gaurko naiko dala bai, ta banoa agur egitera; gure agurik beroenak ortiko euzkaldun guztientzat; ta zuk idazten badauztazu poz-pozik geratuko naz. Agur ta zure boriien zai geurtik.

Garitaonandia tar Gotzon

10. Jakin daizun "Pilosofia" amaitzen nago; datorén urtean, Jauna lagun, teologia asiko dot.
Nire zuzenbidea au da: Angel Garitaonandia
ona idatzi mezedez ↗ caserio "Zabale" Urduliz (Vizcaya)